



Ane Iturbe - Nerea Etxebarria  
Aixerrota BHI, 15-16

## AURKIBIDEA

Lander Garro .....	3
Sarrera .....	3
<i>Gerra Txikia</i> .....	3
• Kokapena .....	3
• Gaia .....	3
• Argumentua .....	4
• Istorioa .....	4
• Pertsonaiak .....	6
• Egituraketa .....	7
• Baliabideak .....	7
Iritzia.....	8
Biblio-webgrafia.....	8

## LANDER GARRO

---

Lander Garro Oreretan jaio zen, Gipuzkoan, 1975ean. Euskal idazlea eta argazkilaria da. Autore honi buruz ez dago informazio askorik, baina hainbat liburu idatzi izan ditu idazle izaten daraman denboran. Adibidez, *Orain galdera berriak ditut* eta *Lehen Aldia* 2004an, *Ez merkeenak! Bai onenak!* 2006an, *Kontrarioak* 2010ean eta *Gerra txikia* 2014an. Azken bi horiek arrakasta handia izan dute.

## SARRERA

---

*Gerra Txikia* eleberriak 80ko hamarkadara eramaten gaitu eta Hendaian dago kokatuta. Lander Garrok 2014. urtean argitaratu zuen nobela da. Ume baten begietatik bizi izandako istorio bat kontatzen da eta, beraz, hura da eleberriko pertsonaia nagusia. Xabi Ugarte du izena, eta familiarekin batera bizitako esperientziek betetzen dute nobelaren mamia. Gerra garaian igarotzen da istoria, baina nobela honetan arrakasta ez da kaleetan zehar gertatzen den zerbait bakarrik, hau da, gerra etxe barruraino sartzen da. Era berean, liburu autobiografikoa da Lander Garrorentzat.

## **GERRA TXIKIA**

---

### - KOKAPENA

Nobela hau gehienbat Hendaian gertatzen da, baina Ugarte familiak hainbat bidaiak egiten dituzte hiri batetik bestera, aita errefuxiatua denez, arriskutik babesteko beharra dutelako. Adibidez, Donostira doaz, eta baita Hernanira ere. Emilioren, hau da, aitaren laguna denaren etxean (hondartza alboan) egiten dute lo askotan, eta baita Xabi eta bi anai-arreben izekoren etxean. Istorioaren hasieran Madrilen aurkitzen dira ama eta umeak, aitaren bila Hernanira joan baino lehen eta istorian zehar bueltatu egiten dira.

Nobelaren gai nagusia gerra izango litzateke, eta protagonistaren familiak egiten dituen ekintzak eta bizitzen dituen abenturak eta korapiloak gerra hori gainditzeko.

### - GAIA

Alde batetik, aurretik esan bezala, Nobela honen gaia gerra ingurukoa da. Gerra honek arazo handiak eragiten dizkio Ugarte familiari hauek denbora laburretan hainbat aldiz etxebizitzaz aldatzea kausatuz. Baita ere, aita preso eramaten dute Madrilerako denbora batez.

Beste alde batetik, Xabiren (pertsonea nagusia) esperientzia pertsonalak azaltzen dira eleberrian; neskengan arreta ipintzen hasten da eta bere anaia nagusiaren eta aitaren begietatik ikusten du mundua.

#### - ARGUMENTUA

Errefuxiatua da Xabi Ugarteren aita. Amak Hiru seme-alabak trenean sartzen ditu 1983ko goiz batean eta, muga igaroz, aitarengana joan dira Hendaiara, baina oraindik ohartu gabe gerra giroa datorrela etxeraino. Zelatan daude mertzenarioak, eta laster gertatuko dira atentatuak, hilketak, atxiloketak...

Bederatzi urteko haur bat izateak, ordea, munduari begiratzeko ahalmen berezia ematen dio Xabi txikiari, eta une zailenetan ere beti saiatzen da atsegin edo probetxuren bat topatzen: lagun berriak, hondartzako egunak, etxera datozen iheslariak, lehen musua.

#### - ISTORIA

Madriren zeudela, Ugarterek, aita izan ezik, trena hartu zuten Hendaiarako bidean, aitaren bila joateko asmoz. Behin hara helduta Emilioren etxera bazkaltzera joan ziren. Emilio aitaren Hendaian bizitzen zuen lagun bat zen. Gurasoek seme-alabei (Gotzon, Nagore eta Xabiri) datorren urtean iparraldean geratuko zirela azaldu zieten.

Emilioren etxean, Emilioren eta honen emazte Izaskunen semea Enekok, Xabiri eskatu zion berarekin lo egiteko. Gau hartan izan zuen Xabik istripua: gauetan ohea bustitzen zuen, eta horregatik, gau horretan ohea bustitzean eta Eneko horretaz konturatzean, korrika joan zen bainugelara lotsaturik. Lotsa izugarria ematen zion arazo horri garrantzia kentzeko nahian, Gotzon (Xabiren anaia nagusia), Nagore (Xabiren arreba nagusia), Xabi eta Eneko Emilioren garajera joan ziren bizikleta baten bila. Baina hor, kuxkuxeatzen zeudela pistola bat aurkitu zuten. Beldurtuta, hortik arineketan alde egitea erabaki zuten.

Hurrengo asteetan, etxebizitza desberdinetatik igaro ziren, baina denboraldi bat igaro ostean, Ugarterek haientzako bizitokia erostea erabaki zuten. Etxea erosi eta denbora bat igaro ostean, polizia, aita errefuxiatua izateagatik, etxe hartan bizitzen zeudela ohartu, eta etxe oso txiki batera bizitzera joan behar izan ziren. Egun batzuk bertan bizi eta gero, beste etxe batera bizitzera joatea lortu zuten, Hendaian. Hiri horretan geratu ziren bizitzen denboraldi luze batez.

Egun batean, dantza-eskola baten ostean, Maitek (egun batzuk lehenago ezagutu zuen neska) bere urtebetetzea ospatzera gonbidatu zuen, eta zerbait oparitu behar liezaiokeela pentsatu zuen. Beraz, kazete bat oparitzea pentsatu zuen. Eguna heldu zenean, etxera joan eta ez zen bakarrik lagunaren amaren itxuraz harritu, oparia emateko lotsa sentitu zuen. Etxera bueltatzeko ordua heldu zenean, ordea, Maitek oparia emateko eskatu zion eta Xabik galdera hau ez erantzuteko ahaleginak egin zituela ikustean, haserre itxura eman zion. Momentu honetan sentitu zen Xabi inoiz baino lotsatuago.

Handik aurrera, Maiterengandik aldentzen hasi zen, eta Oihanataz maitemindu. Neskaren etxe inguruan pasatzen zituen egunak. Oztopo zailena Oihanaren axola gabezia zen. Baina bazuen esperantza txiki bat. Eta esperantza horrek Pailazo Hiltzaileak izena zuen (PHK) bere erakunde armatu propioa.

Ikastolatik bueltan autobus geltokira joaten zen aita seme-alaben bila, baina etxera eramanez zentrora eramaten zituen, Hendayais tabernara. Taberna barruan zer egiten zuen, misterio bat zen. Kartetan aritzen zela esaten zuen Gotzonek, eta itxaronaldia partidaren arabera luzatzen zela. Umeak kotxean uzten zituen, eta hauek hipotesiak egiten zituzten. Nagorek aitak bere burua babesteko eta kotxe azpian bonba bat ez jartzeko uzten zituela hor esaten zuen, baina beste biek ez zioten sinisten.

Ikasketetan kaskar zebiltzan Enekok eta Xabik. Etxera hainbat gutxiegi eramaten zituzten ebaluazioan. Amari etxera heldutakoan notak ezkututzen zizkion, baina gauean, gezurraren pisua jasan ezinik amarengana jotzen zuen. Gau batean gongelan aurkitu zituen Jokin (beraien etxean eskutaturik bizi zen errefuxiatua) eta ama pasaporte faltsu bat egiten Jokinentzat, Adrian Gómez izenarekin, arriskurik ez dagoen tokiren batera joateko.

Egun batzuen buruan Emilio, Enekoren aita, atxilotu eta deportatu egin zuten Cabo Verdera beste errefuxiatu batzuekin batera, Espainiaren eta Frantziaren eta Cabo Verderen artean hitzartu berri zen akordio («acuerdo trilateral») bati esker. Xabiren aita kotxean bonba eta gauza arraroak ez zeudela egiaztatu, Enekoren etxera abiatu ziren. Familia guztia aitarekin joango zela esan zion lagunak protagonistari, pena handiz agurtu ondoren bertatik etxera abiatu ziren.

Xabik dantza-eskolako lehen ekitaldia zuen, eta oso urduri egon arren nahiko ondo egin zuela iruditu zitzaion. Aitak ez zuen berdina pentsatu, dantza amaitutakoan etxera eramanez zuen bere semea, bidetik hitz bat bera ere esan gabe. Hori ikusita, Xabik dantza-eskola utzi egin zuen. Dantza utziz geroztik gehiago estutu zuen Gotzonekiko harremana. Hala iritsi zen anaiarekin estreinako zontzertu batera joateko aukera (etxean gezurra sakatu eta gero). Bertan lehen aldiz alkohola probatu, eta neska frantsez batekin bere lehen musua estreinatuko zuen. Matrailezurak zorrotzuta zituen ile nahasiko punki baten etxean geratu ziren lotan. Hurrengo egunean Xabik ohean txiza egin zuela ohartu zen baina anaiaren hitz lasaigarri batzuekin arazoaz ahaztu egin zen.

Egun batean, Xabik begiak ireki eta hainbat polizia ikusi ditu bera begira. Egongelara jaitsi eta aita ikusi zuen polizia gehiagorekin. Eskuak bizkarrean lotuta zituen. Nagore, Gotzon eta ama sofan zeunden eserita kezka aurpegiarekin. Poliziak Xabiri bere logelako beste ohean nor lo egiten zuen galdetu zion, eta honek ez zuela inork lo egiten erantzun zion. Jokinen ohea zen, baina aspaldi joana zen. Aita atxilotuta eramanez zuten Madrilgo kartzelara. Protagonista Oihanaren etxe albora joan eta bere aita ere atxilotuta eramanez zutela ohartu zen. Herrian zeuden errefuxiatu guztiak Madrilgo kartzelara eramanez zituzten egun hartan. Guztiak Manu izan ezik, poliziak etorri baino lehen eskutatu zelako. Xabiren etxean geratu zen eskutatuta bizitzen.

Madrilera joan ziren aitari bisita egitera. Poz-pozik zegoen, beste pertsona desberdin bat zirudien. Janari ona ematen zietela egiaztatu zuen, eta denbora batez hitz egiten igaro ondoren, atxilotuak etorri ziren lekutik bueltatu egin ziren kartzelara.

Urtarrilaren 5ean, errege bezperan, Isabelle geratu zen Xabiren etxean afaltzen eta lo egiten. Gau hartan, polizia batzuk Manu eta ama atxilotu zituzten bat errefuxiatua izateagatik eta bestea etxean errefuxiatuak sartzen uzteagatik. Polizia-etxera eraman ondoren, hiru umeak eta Isabelle bertan aurkeztu ziren, eta hainbat aldiz inistitu ondoren, ama etxera bueltatzen utzi zioten.

Ustekabean askatu zuten aita kartzelatik. Hendaiara bueltatu eta berriro kartzela baino lehen zuen umorea bereganatu zuen. Estatuak aita Hendaian egotea debekatu zioten, eta amarekin joan zen berriro Oreretara. Hiru umeak bertan utzi zituzten beraien ikasketak amaitzen, eta amaitutakoan gurasoekin aurkituko ziren berriro Oreretan sei hilabeteren buruan.

Asteazken zehar, Xabi Nagoreekin batera barnetegi batean egiten zuten lo, baina asteazken arratsalde eta igandeetan festa zuten, mutila Arantza izeneko emakume baten etxean egiten zuten lo. Nagore berriz hiru umeak familia batera joaten zen. Barnetegian lagunak egin zituzten, eta haien erakunde pribatura (PHK) jende gehiago batu zen.

Ikasturtea amaitutakoan, agur esateko Oihanarekin geratzea erabaki zuen. Bere sentimenduak adierazteko asmoa zuen, baina azkenean ez zion ezer ez esan, Oihana Xabi bakarrik lagun bezala nahi zuela konturatu zelako. Oreretara bueltako trenean bakarrik joan zen Xabi, eta frantses familia batzuekin eztabaida txiki bat izan ondoren, helmugara iritsi ziren.

## - PERTSONAIAK

*Gerra Txikia* nobelako pertsonaia nagusia Xabi da, bederatzi urteko mutiko bat. Istorioan zehar era guztiko ekintzak eta gertaerak bizitzen ditu oso adin txikia izan arren. Mutiko lotsatia da oso. Gehien miresten duen pertsona bere aita da eta, honek egiten dituen gauza askok liluratzen dute Xabi. Neskekiko erakarpen oso handia sentitzen du askotan, bereziki Oihanarekiko. Eleberrian bizi izandako gertaera gehienak bere anaia, Gotzonen, alboan bizitzen ditu.

Xabi aparte, gainerako pertsonaiek garrantzi antzekoa dute, baina aipagarrienetarikoa hurrengoak izango lirateke:

Aita, errefuxiatua da eta hau da istorioa mugiarazten duen gertakaria azken finean. Hiria gerran egoteak ez dio seme-alabekin denbora gehiegi pasatzen uzten. Atxilotua izaten da istorioan baina ustekabean askatzen dute kartzelatik. Xabik gehien miresten duen pertsonaia da.

Gotzon, Xabiren anaia nagusia da, eta aitaren antzeko moduan, honek egiten dituen gauza asko adibide moduan hartzen ditu pertsona moduan hazteko. Frantsesekin harreman ona du, beraien hizkuntza gero eta hobeto menperatzen duelako. Ez da pertsonaia honi buruzko informazio gehiegirik azaltzen.

Oihana, Xabi maitemintzen duen neska da. Mutikoak ez bezala, ez du berarekiko amodiozko sentimendurik erakusten, lagunak bakarrik izan behar direla ondorioztatzen du Xabik. Ikasten eta etxerako lanak egiten igarotzen du eguna. Oihanaren aita, Xabirena bezala, beste errefuxiatu bat da.

#### - EGITURAKETA

Kanpo-egiturari dagokionez, esan daiteke nobela 61 kapitulutan dagoela banatuta eta bakoitzak istorioaren zatitxo bat erakusten duela.

Barne-egiturari dagokionez, ordea, bi zatitan banatzen dela ondoriozta dezakegu. Lehenengoan, familia etxebizitzaz-etxebizitza doaz, bizitzeko leku apropos bat aurkitu nahian. Oro har, zati honetan Ugartetarrek behin betiko finkatuta egoteko toki bat bilatzen dute. Bigarren atalean, ordea, behin familiak etxebizitza erosita dutela Hendaian, hainbat ekintza gertatzen dira. Hala nola aitaren eta beste errefuxiatuen atxiloketa, barnetegia, kontzertua...

Egituraketa erabat lineala da, hau da, ez dira *flashback*-ik aurkitzen istorioan. Garai batetik bestera gertatutako gertakariak azaltzen ditu narratzaileak gertatzen diren neurrian.

#### - BALIABIDEAK

Eleberri hau ulertzeko ez da gehienetan zaila izan, baina lexiko korapilatsuegia erabiltzen du batzuetan.

Deskribapen asko ematen ditu oro har, eta honek gertaerak errazago kokatzera eta ezagutzera laguntzen du. Ez dira astunegiak izaten eta, beraz, ez dira luzeegiak eta kantsagarriegiak egiten.

Elkarrizketei dagokionez, ez dira elkarrizketa askorik agertzen; beharrezkoak direnean bakarrik. Honek impertsonalagoa izatea sortzen du. Elkarrizketa gehiago agertuko balira, pertsonaiak esaten dutenagatik, irakurleak hobeto ezagutzea lortuko luke autoreak.

Narratzaile orojakilea da eleberriaren egilea erabiltzen duena. Pertsonaiak edozein momentutan zer pentsatzen duten eta beraien sentimenduak zeinek diren dakizki. Xabi denbora guztian Oihanaz pentsatzen ari dela adierazten digu Lander Garrok.

## IRITZIA

---

Lander Garrok idatzitako *Gerra Txikia* Eleberria 2014. urtean izan zenez argitaratua, ez du oraindik osperik lortu baina agian, denborarekin, fama hori irabaztea lortuko du.

Hainbat gai agertzen dira nobelan. Honek irakurlearen interesa mantentzea lortzen du autoreak. Adibidez, gerra da orokorrean gai garrantzitsuena edo aipatuena. Asko erabiltzen ez denez nobeletan, xelebrekeria irabazten du. Amodioa ere agertzen da, eta hau nahiz eta istorio askotan erabili, irakurle gehienek atentzioa izatea lortzen du. Are gehiago, neba-arreben arteko harremanak asko azaltzen dira eta, honekin, kasu batzuetan hunkigarria izatea lortzen du.

Istorioak eleberriaren izeburuarekin (*Gerra Txikia*) duen erlazioa nahiko bitxia da. Hau da, nobela, gerra garaian dago kokatuta, eta hau izango da familiaren mugimendu gehienak sortzen dituena. Baina esan daiteke, gerra hura ez dela kaleetan zehar gertatzen den zerbait, baizik eta etxe barruraino edo konkretuki, Ugartetarren familiaraino sartzen den zerbait da.

Laburbilduz, *Gerra Txikia* eleberria, nahiz eta momentu askotan ulertzeko zaila izan, eta ildo galtzeko erreztasuna izan, mami polita eta interesgarria duen nobela da.

## BIBLIOGRAFIA

---

*Gerra Txikia*, Lander Garro, Susa.

## WEBGRAFIA

---

[https://eu.wikipedia.org/wiki/Lander\\_Garro](https://eu.wikipedia.org/wiki/Lander_Garro)

[http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt\\_el/index.asp](http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp)

<http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>

<http://xuxen.eus/#>